

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO EGILEEN AFILIZAZIO INSTITUZIONALEKO ETA HAIEN
SINADURA ZIENTIFIKOA NORMALITZATZEKO JARRAIBIDEAK**

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako Errektoreordetza

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Liburutegia

Iruñean, 2026ko martxoaren 26an

1. SARRERA

Argitalpen zientifikoaren sinaduretan uniformetasunik ez izatea, bai egileen izenetan, bai haien afiliazio instituzionalan, arazoa da, eta horrek eragin negatiboa dauka bai ikertzaileengan, bai Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Normalizazio ezak ikertzaileen ikusgarritasuna murrizten du eta eragin kaltegarria du nazioarteko datu-base bibliografiko nagusietan erregistratutako NUPEko ekoizpen zientifikoaren adierazleetan.

Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko 2011ko ekainaren 1eko 14/2011 Legeak 15. artikuluan ezartzen duenez, unibertsitate publikoetan, Estatuko Administrazio Orokorreko ikerketa-erakunde publikoetan edo beste administrazio publiko batzuetako ikerketa-erakundeetan zerbitzuak ematen dituzten ikertzaileen betebeharra da beren jarduera zientifikoan zerbitzu ematen duten erakundearen izen ofiziala erabiltzea, erakunde horien barne araudiaren eta horiek izenpetzen dituzten akordio, hitzarmen eta itunen arabera.

Aurrekari horiek kontuan hartuta, jarraibide dokumentu honen helburua da NUPEko ikertzaileek jarraitu beharreko irizpide komunak ematea, ikerketa-argitalpenetan beren izenen eta afiliazio instituzionalaren erabilera zuzen eta uniforme sustatzeko. Jarraibide horiek prestatzeko, dokumentu hau hartu da erreferentzia gisa: *Propuesta de manual de ayuda a los investigadores españoles para la normalización del nombre de autores e instituciones en las publicaciones científicas*, Granadako Unibertsitateko EC3 ikertaldeak eta CINDOC-CSICEko Zientzia eta Teknologiaren Análisi Kuantitatiboa ikertaldeak FECYTERako egina (2007).

2. AFILIAZIO INSTITUZIONALAREN NORMALIZAZIOA

Kontratu-, lan- edo funtzionario-betebeharren artean ikerketa-jarduerak dituzten NUPi lotutako langile guztiek afiliazio instituzionala adierazi behar dute beren argitalpen guztietan, eta horrek, **nahitaez, NUPen identifikatzaile instituzionala** eta unibertsitatearen izen osoa jasoko ditu, onartutako izen hauetako batekin:

Afiliazio instituzionala
Universidad Pública de Navarra (UPNA)
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA)
Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA)
Public University of Navarre (UPNA)

Afiliazio instituzionala adierazteko, unibertsitateko bi hizkuntza ofizialetako bat (euskara edo gaztelania), biak edo ingelesa erabiliko dira, argitalpenaren eremuaren eta hartzaileen arabera. **Kasu guztietan, aurreko taulan jasotako izena erabili beharko da, hitzez hitz, inolako laburdurarik edo aldaketarik gabe.**

Nafarroako Unibertsitate Publikoko kontratu-, lan- edo funtzionario-betebeharren artean ikerketa-jarduerak ez dituzten langileek ezin izanen dute NUPen afiliazio instituzionala erabili beren argitalpenetan. Talde horretan sartzen dira, beste beste, irakasle elkartuak, osasun laguntzako irakasle elkartuak eta ordezko irakasleak.

Argitalpenetan afiliazio okerrik detektatuz gero, ikertzaileek kudeatu beharko dute dagozkien datu-base bibliografikoetan (adibidez, Web of Science edo Scopus) zuzentzeko eskatzea, eta, hala badagokio, argitaratu duen aldizkariari eskatuko diote. NUPEko Liburutegiak aholku eman dezake prozesu horretan (bupna@unavarra.es).

Salbuespen gisara, testu osoa euskaraz idatzita duten argitalpenetan, aurreko taulan jasotako euskarazko izenei “NUP” gehitzen ahalko zaie.

Egitura-unitateak komaz bereizita eta izen ofizial osoa erabiliz adieraziko dira (hemen daude kontsultagai: www.unavarra.es). Afiliazio instituzionalak egitura hau izanen du, eta letra lodiz dauden eremuak nahitaez bete beharko dira:

Egile(ar)en izena(k)

[Institutua (hala badagokio)], [Unibertsitateko Saila/Unitatea (hala badagokio)], [Ikastegia (hala badagokio)], **[Unibertsitatearen izena*], [Posta-helbidea]**

* Hautatu aurreko taulako aukeretako bat, izenean “UPNA” jasotzen dutenak.

Egileak atxikita dauden campusaren edo eraikinaren kokapenaren arabera zehaztuko da posta-helbidea. Euskaraz, hauek dira forma zuzenak:

Posta-helbidea
Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia
Osasun Zientzien campusa, Barañaingo etorb. z.g., 31008 Iruñea, Espainia
Tuterako campusa, Tarazonako etorb. z.g., 31500 Tuter, Espainia
Agrobioteknologiako eraikina, Iruñeko etorb. 123, 31192 Mutiloa, Espainia

3. EGILE BERAREN ASKOTARIKO AFILIAZIO INSTITUZIONALA

NUPeekin sinatutako hitzarmenen bidez, NUPeko ikertzaile batek beste erakunde batzuekin ere lotura baldin badauka (ospitaleak, zentro teknologikoak, institutuak edo erakunde analogoak), eta ikerketa-lana erakundeen arteko lankidetzaren emaitza izanez gero, argitalpenetan dagozkion afiliazio instituzionalak jasoko dira. Kasu horietan, hitzarmeneko araudi espezifikoan jasotakoa aintzat hartuko da, halakorik badago. Ez badago, formatu hau erabiliko da:

Egile(ar)en izena(k) ^{1,2}

¹ [Institutua (hala badagokio)], [Unibertsitateko Saila/Unitatea (hala badagokio)], [Ikastegia (hala badagokio)], **[Unibertsitatearen izena*], [Posta-helbidea]**

² Afiliazioa

Halaber, formatu hori erabiliko dute NUPen barruan zenbait afiliazio bereiz jaso nahi dituzten ikertzaileek (adibidez, sail bat eta ikerketa-institutu bat).

Beste unibertsitate edo ikerketa-zentro batzuetan egonaldiak egiten ari diren Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikertzaileek Nafarroako Unibertsitate Publikoko kide direla lehendabizi adierazi beharko dute sortutako argitalpenetan, jarraibide hauetan ezarritako formatuaren arabera.

Era berean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikerketa-egonaldiak egiten dituzten kanpoko ikertzaileek jatorrizko erakundean eta NUPen afiliazio bikoitza dutela adierazi beharko dute osorik edo zati batean egonaldiari buruzkoak diren argitalpenetan, atal honetan aurkeztutako formatuari jarraikiz.

4. EGILEAREN SINADURAREN NORMALIZAZIOA

Gomendagarria da ikerketa-ibilbidean zehar argitalpen guztietan sinadura berdin mantentzea, egilea argi eta garbi identifikatzeko xedez.

Oro har, taula hauetan adierazitako jarraibideen arabera izanen da sinadura:

Izena	Erabiltzeko gomendioa
Sinplea (Adibidea: Jorge)	Osorik erabili, laburtzapenik gabe (Forma: Jorge)
Bi izen (Adibidea: Jose María)	1. aukera: Laburtu bigarrena, datu-baseetan abizen gisa interpreta ez dadin 2. aukera: Lotu bi izenak gidoiarekin (Forma: Jose M. edo Jose-María)
Bi izen partikularen bidez lotuak (Adibidea: María del Carmen)	1. aukera: Kendu partikula eta laburtu bigarren izena 2. aukera: Lotu izenak eta partikula gidoiekin (Forma: María C., María-Carmen edo María-del-Carmen)

Abizenak	Erabiltzeko gomendioa
Abizen bakarra (Adibidea: Ezpeleta)	Lehen abizena oso arrunta ez bada, abizen hori bakarrik erabiltzen ahal da sinaduran (Forma: Ezpeleta)
Bi abizen (Adibidea: García Fernández)	Lehen abizena arrunta bada, bigarrena ere erabiltzea gomendatzen da, gidoi baten bidez bereiziz, datu-baseetan lehen abizena izen gisa har ez dadin (Forma: García-Fernández)
Lehen abizena partikulen bidez hasia (Adibidea: de la Rosa Fernández)	1. aukera: Kendu partikulak 2. aukera: Elkartu partikulak eta abizena gidoiekin (Forma: Rosa-Fernández edo de-la-Rosa-Fernández)
Bi abizen partikularen bidez lotuak (Adibidea: García de la Torre)	1. aukera: Kendu partikulak 2. aukera: Elkartu partikulak eta abizenak gidoiekin (Forma: García-Torre edo García-de-la-Torre)

5. EGILEEN IDENTIFIKAZIO KODEAK ERABILTzea

Egileen identifikazio kodeak (ORCID batik bat) funtsezko tresna dira egileak anbiguotasunik gabe identifikatzeko eta haien ekoizpen zientifikoa erraz kudeatzeko eta jarraitzeko.

Ebaluazio agentziek gero eta gehiago erabiltzen dituztenez identifikazio kode horiei lotutako profilak, oro har, praktika instituzional gisa ezartzen da NUPeko ikertzaile guztiek horiek erabiltzea. Prozesu horretan laguntzeko, NUPeko Liburutegiak langile kualifikatuak ditu (bupna@unavarra.es).

Zehazki, NUPeko ikertzaileek hau egin beharko dute:

- ✓ ORCID identifikazio kode bat lortu.
- ✓ ORCID profilean beren ekoizpen zientifikoa guztia sartu.
- ✓ ORCID profilean beren sinadurako izena ongi islatuta dagoela bermatu.
- ✓ Bidalitako argitalpenetan egile guztien ORCID identifikazio kodea adierazi. Orokorrean, argitalpen prozesuaren fase guztietan (hasierako bidalketa, berrikuspenak eta azken bidalketa) sar daitezke identifikazio kodeak.

Eskuarki, NUPeko ikertzaileek beste identifikazio kode batzuk ere erabiliko dituzte (batez ere ResearcherID-WOS, Scopus Author ID, Google Scholar eta Dialnet), eta gomendagarria da argitaratzeko bidalitako lanetan txertatzea. Halaber, praktika instituzional gisa ezartzen da NUPeko afiliazioa behar bezala adieraztea plataforma horietako, beste sare profesionaletako eta ikerketa-sareetako profiletan (LinkedIn, ResearchGate, Academia.edu, Mendeley, etab.).

6. IKERKETA-INSTITUTUETAKO, NUPeko ZENTRO MISTOETAKO ETA HITZARMENAREN BIDEZ ELKARTUTAKO ZENTROETAKO IKERTZAILEEN AFILIAZIOA

Ikertzailea NUPeko ikerketa-institutuetako bateko kidea baldin bada eta argitalpenak institutu horren jarduerarekin lotura baldin badu, afiliazio instituzionalean horren izen ofiziala jarriko da. Dagokion ikerketa institutuaren erregelamenduan afiliazioari buruz ezarritako araudi espezifikoak beteko da, hala badagokio. Dena den, nahitaez txertatu beharko da Unibertsitatearen izen ofizialeko bat, 2. apartatuan jasotakoan artean. Ikerketa-institutuen izen ofizialak Gobernu Kontseiluak onetsitakoak dira. Gaur egungoak taula honetan daude:

Institutua	Izena
ISC	Instituto de Investigación de Smart Cities (ISC) Institute of Smart Cities (ISC) Smart Cities Institutua (ISC)
INAMAT ²	Instituto de Materiales Avanzados y Matemáticas (INAMAT ²) Institute for Advanced Materials and Mathematics (INAMAT ²) Material Aurreratueterako eta Matematikarako Institutua (INAMAT ²)
INARBE	Instituto de Investigación Avanzada en Negocios y Economía (INARBE) Institute for Advanced Research in Business and Economics (INARBE) Negozioei eta Ekonomiari buruzko Ikerketa Aurreratuko Institutua (INARBE)
IS-FOOD	Instituto de Innovación y Sostenibilidad en la Cadena Agroalimentaria (IS-FOOD) Institute on Innovation and Sustainable Development in Food Chain (IS-FOOD) Nekazaritza eta Elikagaien Katearen Berrikuntza eta Iraunkortasun Ikerketarako Institutua (IS-FOOD)
I-COMMUNITAS	Instituto de Investigación Social Avanzada (I-COMMUNITAS) Institute for Advanced Social Research (I-COMMUNITAS) Gizarte Ikerketa Aurreraturako Institutua (I-COMMUNITAS)
IMAB	Instituto de Investigación Multidisciplinar en Biología Aplicada (IMAB) Institute for Multidisciplinary Research in Applied Biology (IMAB) Biologia Aplikatuko Diziplina Anitzeko Ikerketa Institutua (IMAB)

Hona hemen, adibide gisa, NUPeko institutu bakoitzari dagozkion afiliazioak, ingelesezko izen ofizialarekin.

Institutua	Afiliazio instituzionalaren adibidea
ISC	Institute of Smart Cities (ISC), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Spainia

INAMAT ²	Institute for Advanced Materials and Mathematics (INAMAT ²), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia
INARBE	Institute for Advanced Research in Business and Economics (INARBE), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia
IS-FOOD	Institute on Innovation and Sustainable Development in Food Chain (IS-FOOD), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia
I-COMMUNITAS	Institute for Advanced Social Research (I-COMMUNITAS), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia
IMAB	Institute for Multidisciplinary Research in Applied Biology (IMAB), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia

NUPen eta beste erakunde batzuen arteko hitzarmenaren bidez eratutako zentro mistoen kasuan, atxikitako ikertzaile guztiek beren afiliazio bikoitza adierazi beharko dute (Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta zentro mistoa), dagokion hitzarmenean ezarritakoaren arabera eta bertan jasotako afiliazio araudi espezifikoa jarraikiz, hala badagokio. Nolanahi ere, 2. apartatuan dauden Unibertsitatearen izenetako bat sartu beharko da nahitaez. Jarraian, NUPEk parte hartzen duen gaur egungo zentro mistoen eta hitzarmenaren bidez lotutako zentro teknologikoen afiliazioa jaso da.

Zentro mistoa/erakundea	Afiliazio instituzionala
Navarrabiomed (<i>Ez dago lotuta argitalpeneko hizkuntzarekin</i>)	Navarrabiomed–Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa–Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Osasun Zientzien campusa, Barañaingo etorb. z.g., 31008 Iruñea, Espainia
IdiSNA	Bereizitako afiliazioa ematen bada, 3. apartatuaren arabera, bigarren afiliazioan izen hauetako bat sartu behar da: <ul style="list-style-type: none"> • IdiSNA, Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua • IdiSNA, Navarra Institute for Health Research
NAITEC (<i>Ez dago lotuta argitalpeneko hizkuntzarekin, eta erakundeak ordena horretan edo alderantzizkoan agertzen ahal dira</i>)	Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA)-NAITEC, Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia

ERANSKINA. ERABILERA ADIBIDEAK

Jarraibide hauen erabileraren kasu desberdinak argitzeko asmoz, hona hemen ikertzaileen egoeraren araberako afiliazio adibide batzuk.

1. NUPeko ikerketa institutu bateko ikertzailea:
Gizarte Ikerketa Aurreraturako Institutua (I-COMMUNITAS), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia
2. Ikerketa-institutu bateko ikertzailea, sail baterako atxikipena ere islatu nahi duena:
 1. aukera:
Negozioei eta Ekonomiari buruzko Ikerketa Aurreratuko Institutua (INARBE), Ekonomia Saila, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia
 2. aukera:
¹ Negozioei eta Ekonomiari buruzko Ikerketa Aurreratuko Institutua (INARBE), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia
² Ekonomia Saila, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia
3. Inongo ikerketa institututakoa ez den NUPeko ikertzailea, sail baterako atxikipena islatu nahi duena:
Osasun Zientzien Saila, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Osasun Zientzien campusa, Barañaingo etorb. z.g., 31008 Iruñea, Espainia
4. Argitalpena neurri batean NUPeko institutu batean egindako egonaldiari esker garatu duen ikertzaile bisitaria:
 - ¹ Institute of Smart Cities (ISC), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia
 - ² Jatorrizko afiliazioa
5. Argitalpena neurri batean beste erakunde batean egindako egonaldiari esker garatu duen NUPeko institutu bateko ikertzailea:
 - ¹ Institute on Innovation and Sustainable Development in Food Chain (IS-FOOD), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia
 - ² Helmugako afiliazioa
6. Navarrabiomedeko ikertzailea, argitalpena zentro horren esparruan garatu duena:
Navarrabiomed–Nafarroako Ospital Unibertsitarioa–Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Osasun Zientzien campusa, Barañaingo etorb. z.g., 31008 Iruñea, Espainia

7. Argitalpena IdiSNaren esparruan garatu duen NUPEko institutu bateko ikertzailea:

¹ Institute on Innovation and Sustainable Development in Food Chain (IS-FOOD), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia

² IdiSNA, Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua

8. NAITECekin egindako lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan argitalpena garatu duen ikertzailea:

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA)-NAITEC, Arrosadiko campusa, 31006 Iruñea, Espainia